

«PEIXOTO» REKIN SOLASEAN

TXILLARDEGI

Imanol Pagoaga, «Peixoto», mondragotarra 35 urte, Euskal Herrian presentatu beharrik ez dago; ezta orain dela hilabete batzu Donibanean izan zuen atentatua inori gogoratu beharrik ere. Hila zen berria zabaldu zen lehenengo mementuan; geroxearago itsu gelditua zela. Eta bidezko zirudien galdera honetatik hasi gara:

P.H.: Zer moduz, Peixoto? Zertan dira atentatuaaren ondorioak batez ere? Ezer ikusten ahal duk?

P.: Beren txarrean, nere osasun kontuak hobetoxe joazak. (Ezkerraldeko eskua zeharo desitxuraturik gelditu zaio, eta kopeta ere halako marka nabarmen bat ageri da).

Eskumako eskua ondo dok, baina ezkerrekoa galdu egin juat. Posta guztia ezkerraldean hartu nizkian, eta birika ere oso txarto gelditu jatak. Okerrena dana dala, begiena izan dok; begi ona galdu juat; eta txikitandik ia erabat galdua neukana hor gelditu dok, bai. Zerbait irabazi juat, baina gutxi.

P.H.: Irakurtzeko haina edo bai?

P.: Bai zera! Ez, ez. Nahiago niake!

P.H.: Zerbait ikusten duk halere. Orain, zigarroa erretzerakoan, ongi hartu duk hautsonzitik behin eta berriz...

P.: Hori bai. Halako banda hestu bat edo badiat, eta banda horretan itxurak edo ikusten dizkiat. Hi, esate baterako, nolapait ikusten haut; eta lehengo irudia oraingo ikuspenari gaineratzen zaiook. Bainan urrun eztiat ezer ikusten: ezin diat kotxea eraman. Oiñez ibillu ere, nekez: kolore-diferentzia bat ikusten dodanean, etxakixat zuloa dan ala beste kolore bateko parte bat ote dan. Eta irakurtzeko, ezebe: «Egin»-eko lau letra horiek bakarrik!...

P.H.: Izugarria izan duk.

P.: Hala izan dok, bai. Baña ni pribilejiatua nok halere. Beste batzuk dana emon juek, eta iñor be eztok be-roietaz gogoratzen. Horra hor «Pantu», esate baterako. Eskatu zi-tzaion guztia emon dik, bizia ere bai; eta ahaztu egin dok. Nik «Pantu» be-



Así ha quedado Peixoto después de sufrir el atentado.

zelako base-militante horien kasua ai-patu nahi nikek. Horien kasua bai izugarria!

P.H.: Gaur halere higana jo diagu; eta «Punto y Hora» ko irakurleentzako berri bila etorri gaituk. Jende askok hire berri jakin nahi dik, eta hire irizpideak ezagutu.

P.: Zer nahi dok, ordia, nik esatea? Dana esana jagok, eta ondo esana. Jentia hor jagok, nor bere iritziekin; eta nik zernahi esanda ere, etxuat iñor komentitzuko.

P.H.: Hire kasua, halere, «caso extremo» horietakoa duk.

P.: Zertan?

P.H.: Hi, esate baterako, Elizaren instituzioetan ibili haiz Ameriketan; eta gero, españatar politziaren arabera, garbitu behar diren «terrorista» horietakoa haiz.

P.: Bai. Hori egixa dok: ni Ameriketan izan nok hiru urtez: 1968ko Abuztuan fan, eta 1971ko Abuztuan etorri. Eta han, hori egixa d! k, Obis-

poaren eta abarren ekintzan ibilli nintzuan. Baña gauzia eztok izan uste dan bezala. Nik neure burua Gasteizen, eta harako, eskeñi nauanean, argi eta garbi esan nauan: «nik ez dot siñisten. Baña Ameriketara fan nahi neuke bolara batez, eta gertu naiz Elizak han duen zerbaitetan prakadun gisa laguntzeko».

P.H.: Eta orduan?

P.: Orduan mekanika-lantegi bat han muntatzea proposatu eustien: edo Venezuelako Valle del Tuy-n, edo ta Ecuador-ko Quevedon. Eta nik bigarren hau aukeratu nauan: «Escuela Profesional de Formación Acelerada» dik izena gaur, eta hango importanteena dok. Mekanika-ikasketak Arrasaten egin nizkian nik, eta horra hor gertatu zitzaidan aukera.

P.H.: Eta, zer dela-ta joan hontzen hara?

P.: 1968 urtea oso urte kritikoa izan zuan. Etxebarrieta orduantxe hil zuan; eta ETA-ren barruko gorabeherak ere orduan gertatu zitzuan: boskarrena, seigarrena, eta abar. Ni 1964-an sartua nintzuan ETAn; baña 1967-an zatiketa gertatu zanean, gure taldea («ahuntzak» edo «Kabra-taldea», ezagutzen dok noski) aparte gelditzea erabaki genian. Boskarren Biltzarrea egin zenean, dana dala, bertara bidali gintuzten «ahuntzek» Antton Mendizabal eta ni bixok. Eta han izan gintxuan, baña ezer garbirik ulertu ez; eta krisi hura pasa arte zer egin enakixan. Eta horretatik nora-pait fateko asmua.

P.H.: Eta bertan gelditu edo?

P.: Ez. Etxuan posible. «Kabra-taldeak» etxuan etorkizunik: hau garbi jauan. Baña ETA be etxauan garbi, eta behar zan dirubidea bez. Onena, beraz, denpora apur bat pasatzen uztea zuan. Eta horretara fan nintxuan.

P.H.: Eta etortzean?

P.: Giroa aldatua jauan. Txomin Iturbe adiskide zaharrarekin hitzegin nauan, eta beste batzukin. Eustakio ere orduan ezagutu nian (Etxabe irten ondonre buru-edo esaten zu-tena). Eta gizonak ikusi nizkian, gi-

zaonak. Gutxi beharbada, baña gizonak. Eta berekin fan nintxuan. «Xenpe» ere orduan ezagutu nian: gizon benetakua ere bai. Eta Eustakio eta Txomínek Garruzen zeukan ten berotokian hasi niñuan lanean.

P.H.: *Eta zer moduz urte horietan, gero?*

P.: Zer nahi dok esatea? Etxagok ezer espezialik.

P.H.: *Eta atentatua hortaz?*

P.: Ezaguna dok Franco-ren leloa: «las fuerzas del extranjero», eta abar, eta abar. Alegixa, problema kanpotik datorrela, eta abar. Hau etsaien joko ezaguna dok. Ni ados nauk, erabat, ETA-k daraman burukarekin. Baña horretatik politziaren esanetara... tartia bajagok!

P.H.: *Hala ere, garbi zegok oraingo saioa: hemengo errefuxiatuen arazoa nola edo hala garbitzea.*

P.: Bai, bai. Eta nik neure iritzia emongo deutsat hori buruz. Ene iduriko antz piska bat dik oraingoak eta 1937-an Gernikarekin gertatu zanak. Orduan geldirik jaguan Norte-ko Frentea sei hillabetez. Eta Francok hau galdeku juan: «nun da abertzaleen izpiritua?». Eta Gernikan somatu zian sinboloa. Eta Gernika xehatu zian. Orain ere bardin gertatzen zaiok Suarez-i: abertzaletasunaren muñia Herri Batasunean ikusten dik, eta ETA beronen atzean. Eta hau xehatu nahi dik. Nori emon, ordia? Etxakik. Eta gutaz oroitu dok orduan: «emon horreri». Eta lehen Hitler-en laguntza billatu zuen bezala, orain Fraintzia-rengura aurkitu dik. Nolakoa eta zenbaterañokua, etxakixat. Baña zerbait bai. Eta 40 edo 60 errefuxiatu garbitz, Euskadiko problema konponduko duela uste dik; baña oker jagok erabat.

P.H.: *Eta Estatutua orain aurrera ate-ratzen bada?*

P.: Goitik hasi eta beherañoko guztiek ikusi ditek erreforma demokratikoa hau dala makurrik txikiena: makurrik txikixena españolentzat, jakinía; besterik eta handixagorik eztein etorri. Eta horra hor Estatutua. Baña eztik ezer konponduko. Estatutu horrek gu zatitzeko balio dik; eta garbi ikusi dok hori fan daneko urte honetan. Hor daukok garbi Estatutuaren helburua, PNV-ak bere egiña: «Reconstrucción y Paz». Gogoan diat oraindik Franco-ren hora: «Paz y trabajo»... Gurea hau dok: «Askatasuna eta lana».

P.H.: *Abertzale batzuk halere ontzat eman ditek bide hori.*

P.: Abertzaleak bi zatitan ikusten dizkiat nik. Alde batetik jaozak «euska-



El viejo y el joven guardi. Las postas aún no habían marcado a Peixoto.

dunek naiz-ta gosiak hill» esaten dutenak; eta bestetik «lehenik ondo bizi, eta gero ahal bezain euskaldun» esaten dutenak. Bigarren hauetako Estatu-Eta aurrerakoan bi talde horien artean izango dok burukia.

P.H.: *ETAk aurrera joko dik gero ere?*

P.: Galdera hori ETA-ri egin behar zaiok.

P.H.: *Eta hik heuk zer uste duk?*

P.: Nik hau uste juat: eztiela mille mutill, eta ez dutela Estatutuarekin amorrremango. Ez dutela burrka

utziko, beraz; atzean duten sektorea, oso sektore importantea dalako.

P.H.: *Eta KAS-en puntuak onartuko balira?*

P.: Euskal Herri osoan etxagok iñor puntu horiek onartzan eztituenik. PNV-ak ere pozik onartuko lizkikek. Madrillentzako dituk txarrak: hori dok kontua. Eta burruka egin behar diagu, latz! Eta jentziak bajakik.

P.H.: *Hala ere, askotan entzuten duk hortik: «qué hay detrás de ETA?».*

P.: Hemen kristoren intosikazioa jagok. España eta Fraintzia euskal burruka lurperatu naian ari dituk, eta horretatik jatok asmo hori: «ETA una rama más del terrorismo internacional». Baña hori gezurra dok. Eta garbi aitortu ditek hau amerikanoek Berlingo Nazioarteko Biltzarre Nagusi horretan, orain dala gutxi; eta IRA eta ETA berezi egin behar direla esan ditek. Loturarik eztik ezerekin. Herria jagok atzian, hori bai.

P.H.: *Ez diagu bada hori entzuten. Orain dela gutxi berriro adierazki dik Txiki Benegas-ek «impuesto revolucionario»*

nario» delakoak hoandatu duela Euskal Herriko ekonomia.

P.: Nik ETA-ren deklarazioak siñisten dizkiat. Eta oker ez banago, zifra hau emon zian halako batez: 200 milloii gaur gaurkoz. Zifra horretara «eztala iristen» esan zian. Eta nik siñisten diat hori. Euskal Herriko ekonomia horrengatik izorratu dela pentsatzeko, beraz... Atrakoak ere izan dituk. Baña edozein iraultzatan erabili dituk diruketa handiagoak. Gauza bera UCD-ak bere kanpaina-

P.H.: *Eta Iparralde honetan ez ahal zaudete umezurtz-edo azken bolara honetan?*

P.: Etxean gaudek hemen. Ez behar gendun bezain, baña herriak konprenditzen dik. Areago, eta txobinismoa badirudi ere: euskaraz baldin badaki hemengoak, gure kasua ulerzen dik.

P.H.: *Zuek ere euskaldunak gehiene-tan?*

P.: Ni neu Mondragoko «Aranguren» baserriko nok. Eta errefuxiatuk geixenak, bardin: basarriko artaburu batzuk gaitxuk!

P.H.: *Euskarak garrantzi handia dik beraz...*

P.: Etxagok dudarik. Sua botako niket honi buruz. Guretzat arnasa dok. Arnasa bera. Eta honi buruz Amuriza-ren bertsoak egiten dizkiat nire:

«arnasa hartu behar dugu eta iriki atea,

arraina uretara eta

euskara bere Unibertsidadera»

Arnasa dok euskera. Aski dok Esta-

tutuak euskerari emoten dion mailla ikustea, kontra jartzeko.

P.H.: Beraz, Estatutuari ez?

P.: Nik abstentzioa proposatuko niake, noski. Bainha hori baño gexago: nik etxuat Estatuto hori haintzakotzat hartzen ere. Estatuto hori inposatua dok, oñiarri duen Konstituzioa bezalaxe. Berorren izariak, mugak, limiteak, Madrillek jarri dizkik. Eta hau esan ziguk: «O ese Estatuto, o el Ejército a la calle»... Ejerzitoa, ordea, kalean jagok; eta Suárezek eztik Ejerzitoaren nahia baño egiten.

P.H.: «Esos locos están provocando el golpe de Estado» esaten ditek han eta hemen...

P.: «Golpe de Estado» emoteko kondiziorik etxaok. Edo, hobeto esateko, golpe hori emona jagok. Suárezek «hasta las comas» bete behar dik Ejerzitoaren esana. Eta ez hori bakarrak: Espanako ejerzitoa gaur benetan jagok banka kontrolatzan duten berberen eskuetan. Ejerzitoan oligarkak agintzen juek, eta beren pertsonez agintzen. Hau Francoren lorpena izan dok: Estado Mayor-eko agintariak oligarkak dituk, eta Francoren garaian nagusitu dituk, baita aberastu ere. Ekonomia eta ejerzitoa klase berberak kontrolatzan dizkik, eta oligarka berberak ere bai.

P.H.: Klase interesen araberako azalpena zuzena duk, beraz, hire ustez.

P.: Dudarik gabe klase interesak nabarmen jagozak hor. Ni enok marxista, halera; etxuat aski ezagutzen.



Peixoto, antes del atentado.

Aski ikasi ahal izan eztodalako, jaikiña.

P.H.: Eta HB-ak ba ahal du aski kontutan burukaren klase-osagai hau?

P.: Nik baietz uste juat. Eta honi buruz diferentzia bat egingo nikel: Herri Batasunak benetan galdetzen ziok herriari zer iruditzen zaion, eta abar. Beste taldeek baita beren burua ezkertartzat daukaten horiek ere, zer egin behar dan bajakiek, eta etxuek iñoz ezer galdetzen. «Jakintsuen» arteko asuntua dok politikia horien ustez. HB-ak, berriz, iritziak eskatzen dizkik; eta horrela hezi egiten dik herria. Gañerakoekin eztok hori gertatzen: goikuak zer egin behar den esaten ditek, eta segitzailleek «uau, uau,

uau» erantzuten ditek; buruzagiak «basta» esan arte. Ezteke jendia haintzakotzat hartzen? Eztok egixa.

P.H.: Bide latza hirea.

P.: Bai. Baña beste biderik etxagok.

P.H.: Eta lagunen heriotzak? Eustakio, Argala...

P.: Lehen ere esan diat: nik izugarri maite nizkian Argala, Eustakio, eta besteak. Bainha lehen ere esan dodana esateko: Pantuk dena eman dik. Horregatik, eta fijatzen baldin bahaiz, ene etxeen etxak iñoren fotorik. Eta jangelan dagoen irudia, zurez egindako beltz hura, denen irudia dok, eta horretatik haren izena: «Ortzanko». Denena dok, eta kitxo.

P.H.: Eta besterik, zer? Ez ahal daukak ezer elkarrizketa hau irakurriko dutenentzat?

P.: Zer nahi dok? Etxakixat...

P.H.: Zer adierazten du «Bietan jarrai» horrek?

P.: Azaldua izan dok.

P.H.: Eztiat uste batere ezagutzen denik.

P.: Tira, ba. Mondragoko abertzale zahar batek proposatu zian hori aspaldian; eta haren marrazkia, horrela, ETA-koengana helerazi ziaten. Jendeak begi onez ikusten zian, baina Argala ixilik jagoan... Azkenean ahoa ireki dik: «Ongi da, bai. Contundentes como el hacha, astutos como la serpiente». Eta besterik gabe onartua izan zuan.

P.H.: Mila esker pasadizu honengatik ere. Eta Punto y Hora hau irakurriko duten guztien izenean, eskarrik asko.

Siguiendo la lista de los «Guardias de ayer y de hoy», Txillardegi ha entrevistado esta semana a Imanol Pagoaga, «Peixoto». Superviviente de un tremendo atentado que sin embargo le ha dejado señales contundentes de su paso, sigue aún con sus convicciones políticas y su acostumbrada reserva a la hora de expresarlas, lo cual acredita la entereza de su carácter.

Sobre el atentado que le ha dejado prácticamente ciego, le ha destrozado el pulmón y la mano izquierda y una profunda cicatriz en la frente dice «yo en definitiva soy un privilegiado; otros lo han dado todo, incluso la vida». Manifiesta «Yo aprecio profundamente a Argala, Eustakio... pero los que me merecen una mención especial son los militantes de base como «Pantu» que han muerto. De ellos ya no se acuerda nadie, por eso en mi casa no verás la fotografía de nadie en particular, sino un cuadro que los recuerda a todos».

Su historial de lucha comienza en ETA, pasa por la corta existencia del grupo «El cabra»; hay un paréntesis de tres años en los que estuvo en Ecuador para montar un taller mecánico con las misiones diocesanas vascas ubicándose en Quevedo «Yo no soy creyente, —les dije— pero estoy dispuesto a trabajar o ayudar allí en lo que haga falta», más tarde vuelve a ETA «Cuando volví el ambiente había cambiado mucho, conocí a Eustakio, a Xenpe, volví a tomar contacto con Txomin Iturbe... Por lo menos había hombres, pocos, pero hombres de verdad».

Habla del Estatuto, ETA, la lucha de clases, la situación de los refugiados, la correlación de fuerzas en Madrid... eso sí, deja entrever su actual desligamiento de ETA. Se muestra partidario de la abstención en el referéndum estatutario por lo que éste supone de claudicación ante el poder central y puntualiza sobre los «abertzales»: «Hay dos clases de abertzales, los que dicen: «Seré vasco aunque por ello tenga que morir de hambre» y los que dicen: «Primero a vivir bien, después todo lo vasco que

sea posible». Estos últimos son los que aprueban el estatuto, los primeros no». Sobre ETA «Yo creo que seguirá adelante, no claudicará ante el estatuto». Responde a las preguntas «¿qué habrá detrás de ETA?» «Y la crisis económica provocada por el impuesto revolucionario de ETA?»

Sobre la situación de los refugiados de Euskadi Norte dice que se explica por algo parecido a lo que llevó a Franco a destruir Gernika «Franco se preguntó donde se encontraba el centro del espíritu abertzale, llegó a la conclusión de que era en Gernika y por eso la destruyó. Suárez ha llegado a la conclusión de que el centro está en HB y en ETA y ha decidido actuar contra ésta.

Antes les ayudó Hitler y ahora cuentan con la ayuda de Francia». Sobre esta misma cuestión afirma «En Iparralde nos encontramos «en casa», no tan bien como debiéramos, pero sobre todo el habitante euskaldun de aquí, entiende nuestro problema. El euskara tiene muchísima importancia, es nuestro aliento; solamente por el tratamiento que el Estado le da al euskara, ya lo hace rechazable».

Respecto a la correlación de fuerzas del Gobierno centralista «Franco consiguió unir oligarquía y ejército y en la actualidad los mandatarios del Alto Estado Mayor son oligarcas. Son los mismos quienes controlan la economía y el ejército, por lo tanto —responde a que ETA pueda estar provocando el Golpe de Estado— es imposible que se dé un golpe de estado, o mejor dicho, el golpe se ha dado ya, puesto que Suárez obedece ciegamente al ejército».

Culmina su perfil político manifestando su simpatía por HB dado el carácter popular y de democracia directa que propugna.

Finalmente explica el emblema de ETA (m) —no sin resistirse levemente— haciendo eco de la interpretación de Argala «Contundentes como el hacha, astutos como la serpiente».

ATZOKO ETA GAURKO GUDARIAK